Bergarako Udala

BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, HONAKO HAU ARAUTZEKO: OXIRONDO AZOKAKO UDAL ERAIKINEAN, BEHEKO SOLAIRUKO ESKUINALDEAN, SUKALDEAREN ETA GUNE BATERATU-DENDAREN OINARRIZKO EKIPAMENDUA HORNITZEA ETA INSTALATZEA.

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- XEDEA

Kontratuaren xedea da Oxirondo Azokako udal eraikinean, beheko solairuko eskuinaldean, sukaldearen eta gune bateratu-dendaren oinarrizko ekipamendua hornitzea eta instalatzea. Aipatutako hornikuntza plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan jasotakoaren arabera egin eta emango da, pleguok enpresa adjudikazio-hartzailearekin sinatuko den kontratuaren parte izatera pasatuko dira-eta.

CPV	IZENDAPENA
39141000-2	Sukaldeko altzariak eta ekipamenduak / Muebles y equipos de cocina

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62. artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, **Kontratuaren Arduraduna** udal aparejadorea da.

2.- ENTREGATZEKO EPEA

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Oxirondo Azokako udal eraikinean, beheko solairuko eskuinaldean, sukaldearen eta gune bateratu-dendaren oinarrizko ekipamendua hornitu eta instalatu beharko du udal-zerbitzu teknikoekin adostutako baldintzetan eta baldintza teknikoen pleguan ezarritako epean.

3.- ADMINISTRAZIOAREN (BERGARAKO UDALAREN) ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Kontratazio hau arautuko duten baldintzen pleguetan administrazioa edo/eta Bergarako Udala jasotzen denean beti eta kasu guztietan Bergarako Udalari erreferentzia egiten diotela kontuan izanda, honako hauek dira dagozkion eskubide eta betebeharrak:

- Kontratua ikuskatzea Udalari dagokio, bere langile teknikarien bidez; eta horiek jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, kontratua behar bezala bete dezan, kontratu-klausuletan oinarriturik, eta kontuan izanik zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmena Alkateak izango duela.
- Administrazioari honako prerrogatibak dagozkio: kontratua interpretatzea; hura betetzean sortzen diren zalantzak erabakitzea; interes publikoaren arrazoiengatik aldatzea; haren amaiera erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea; betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko

Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzen eta ondorioen mugekin eta horiei lotuta.

- Adjudikazio-prezioa ordaintzea, hau da, Bergarako Udala beharturik egongo da Baldintza Administratibo Partikularren Plegu honetan ezarritako kopuruak ordaintzera.
- Enpresa adjudikazio-hartzaileari babes egokia ematea, hornidura behar bezala eman ahal izan dezan, eta ahal den guztian laguntzea.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa, BEZ kanpo, 125.084,27 euro izango da (151.351,97 euro, BEZ barne).

Eskaintzaileek diru-kopuru hori hobetu ahal izango dute. Lehiatzaileek euren eskaintzan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) erantsi beharko dute eta kontzeptu hori xehatuta agertu beharko da. Ezingo da, inolaz ere, prezio altuagorik eskaini.

Prezioaren barne daude hornidurarako eta, hala badagokio, instalaziorako beharrezkoak diren gastu guztiak. Adibide gisa bakarrik: garraioa, enbalajea, muntaketa-gastuak... Hau da, udalak plegu honetan berariaz bere gain hartu ez dituen gastu guztiak sartzen dira.

Lizitatzaileek prezioa hobetu ahal izango dute. Ezingo da, inolaz ere, prezio altuagorik eskaini. Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko. Adjudikazio-hartzaileak eskainitako prezioa ordainduko da.

5.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIOKO AURREKONTU-OINARRIA

Balio estimatua: **125.084,27 euro** (BEZ kanpo).

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

- Lizitazioko oinarria edo prezioa (BEZ gabe): 125.084,27 €
- BEZ (% 21): 26.267,70 €
- Guztira: **151.351,97 €**

Lizitazio honen xedea den hornidura zuzeneko kostuek osatzen dute guztira; beraz, ez dago banakako desgloserik egiterik.

6.- FINANTZAKETA

Aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du kontratu honen eragina izan dezaketen hurrengo ekitaldi ekonomikoetako aurrekontuetan kontratua finantzatzeko behar adina kreditu erreserbatzeko.

Honako hau da aurrekontu-partida: 1 3900.643.431.20.01 2023 (BK 1050)

7.- ORDAINTZEKO ERA

Behin horniketa eta instalazio-lanak amaitutakoan, enpresa adjudikazio-hartzaileak dagokion faktura aurkeztu beharko du.

Fakturak onartu ondoren ordainduko dira, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako legezko epeetan.

Enpresa kontratistak faktura(k) formatu elektronikoan aurkeztuko d(it)u, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (FSPOe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Udal Aurrekontuaren Exekuzio Arauan xedatutakoaren arabera, 25/2013 Legea betez (25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore Publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitzako erregistroa sortzen duena).

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Bergarako Udala:

- Organo Kudeatzailea: EL01200744
- Unitate izapidetzailea: EL01200744
- Kontabilitate bulegoa: EL01200744

8.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da preziorik berraztertuko.

9.- BERMEAK

Ez da behin-behineko bermerik ezarriko.

Kontratazio-organoak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145. artikuluak xedaturikoarekin bat, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo dio, **eskainitako azken prezioaren (BEZ kanpo) % 5aren pareko behin betiko bermea** eratu dezan gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean –errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita–.Udalak ofizioz egiaztatuko du eratu izana.

Bermeak Udal Diruzaintzan ezarri beharko dira eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluaren arabera eman ahal izango dira. Bermea eskudirutan gordailutzea erabakitzen bada, bermearen zenbatekoa honako kontu korronte honetan sartuko da: KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569. Kontzeptuan espedientearen zenbakia eta kontratuaren xedea aipatu beharko dira.

Kontratua **aldatzea**ren ondorioz haren balioa ere aldatzen bada, bermea **berregokitu** beharko da hamabost eguneko epean –kontratu-aldaketaren erabakia adjudikazio-hartzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita–, Sektore Publikoko Legearen 109.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Adjudikazio-hartzaileak eskainitako berme-epea amaitutakoan, behin betiko bermea itzuli egingo zaio, osorik edo zati batean, adjudikazio-hartzaileak kontratuko betebehar guztiak beteta ote dituen kontuan hartuta. Bermeari buruzko inolako eskaintzarik ez bada aurkezten, ondorio hauetarako Baldintzen Plegu Teknikoetan jasotako gutxieneko berme-epea hartuko da kontuan. Itzulketa egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

10.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da.

Kontratua adjudikatzeko, eskaintzak baloratzeko orduan oinarri izango diren balorazio-irizpide bakarrak hauek izango dira: prezioa eta berme-epeari eta energia-eraginkortasunari buruzko hobekuntzak. Horrela, adierazitako irizpideen batura eginda puntuaziorik handiena lortzen duen eskaintza proposatuko da kontratu honen horniduraren adjudikaziorako.

11.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuren bat ere ez badute. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87. eta 91. artikuluetan jasotakoari jarraitu beharko zaio.

Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitatzaileek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa talde bat eduki behar dute.

12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak soil-soilik **baliabide elektronikoak** erabiliz aurkeztuko dira, Kontratatzailearen Profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan **–HAMABOST (15) EGUN NATURAL, kontratazio-xedeko horniketa instalatu behar den lokalera egingo den bisitaren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita–**, baina betiere kontuan hartuta azken egunean **13:00ak arte** bakarrik aurkeztu ahal izango direla. Epea larunbata, igande edo jaiegun batean bukatzen bada, hurrengo laneguneko eguerdiko 13:00etan bukatuko da epea.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta isilpekotasun hori bermatzeko baliabideak jarriko dira proposamenak ireki arte. Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/). Zerbitzu horiek erabiltzeak honako hau esan nahi du:

1.- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.

2.- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.

3.- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzeko, bi fasetan egin ahalko da: lehenengo, eskaintzaren aztarna elektronikoa helarazi (hori jasotzearekin, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena ondorio guztietarako) eta, gero, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da, zeinaren sorrera-prozesuak bermatzen baitu datu horiek zalantzarik gabeko eran lotuta daudela eskaintzaren beraren edukiarekin; datu horiek, gainera, aukera ematen dute eskaintzaren edukian gerta daitezkeen aldaketak detektatzeko, haren integritatea bermatuz. Espedienteari gehitu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloko indarreko legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta hartan ezarritako ondoreak sortuko dituzte.

Erabiltzaileen Laguntza Zentroa: Telefonoa: 945 016 298

Interneteko helbidea: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/

Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzaileek ezin izango dute aurkeztu aldaerarik edo alternatibarik.

13.- LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak soil-soilik **baliabide elektronikoak** erabiliz aurkeztuko dira. Proposamenak hiru fitxategi elektronikotan aurkeztuko dira:

- 1. fitxategi elektronikoa: Dokumentazio Administratiboa.
- 2. fitxategi elektronikoa: Dokumentazio Ekonomikoa, eta automatikoki baloratu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa. (I. eranskina)

Fitxategi elektroniko bakoitzaren barruan, ondoren zehazten diren agiriak sartu beharko dira:

- 1. fitxategi elektronikoa

1. fitxategi elektronikoan honako dokumentu hauek egon beharko dira:

a) **Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC)**. DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

"https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es".

Halaber, udal honen Kontratatzailearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

b) **Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat (ABEE)** eratzeko konpromisoa, hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, adjudikazio-hartzaile ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

c) **Atzerriko enpresen deklarazioa.** Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin

zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.

d) **Posta elektronikoko helbide bat** errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko. (IV. eranskina)

e) **Azpikontratatzea:** Lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzea aurreikusten duten eta zein, eta zehaztu egin beharko dute horren zenbatekoa eta lana egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila –gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuz– (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215-2a) artikulua).

f) **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen aitorpena.** Lizitatzaileek adierazi egin beharko dute, hala badagokio, aurkeztutako dokumentu administratibo, tekniko eta datuetatik zeintzuk diren, beraien ustez, konfidentzialtzat hartu beharrekoak. Gainera, gorabehera hau argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatuta, ertzean idatzita edo beste edozein eratan) halakotzat hartutako dokumentuan bertan. Lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei ezagutaraztea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Horrelako adierazpenik aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela izaera hori duen dokumentu edo daturik. (V. eranskina)

g) **Hornitu beharreko elementuen fitxa teknikoa:** Plegu Teknikoen I. eranskinean jasotzen den bezala, gainerako dokumentazioarekin batera, hornitu beharreko elementu guztien fitxa teknikoa aurkeztu beharko da – baldintza teknikoen pleguaren I. eranskinean zehazten dira elementu horiek–, horrela baldintza-pleguko eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko; hau da, lizitatzaileek, 1. fitxategi elektronikoan, gainerako dokumentazioarekin batera, horniketaren deskribapen tekniko zehatza aurkeztu beharko dute (ziurtagiriak betetzen direla, neurriak, materialak, argazkiak...) eta, ahal denean, egiaztatu. Ezaugarri teknikoak ahalik eta gehien doitu behar dira eranskinean zehaztutakoei. Material edo bestelako ezaugarri baliokideak aurkezten badira, baliokidetasun hori frogatu beharko da (frogatzeko zama lizitatzailearen gain geratzen da), betiere funtzionalitateak eta kalitateak errespetatuta. Era berean, udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu haien ezaugarriei buruzko argibideak edo ziurtagiriak, eta kasu horretan, eskatutako dokumentazioa edo argibideak aurkezteko lizitatzaileak hiru (3) egun balioduneko epea izango du –horretarako jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita–.Fitxa tekniko horietan ez da sartuko hobekuntza gisa eskainitako produktuen bermeari buruzko informazio edo egiaztagiririk, ezta baloratu beharreko eraginkortasun energetikoaren mailari buruzko informaziorik ere. Fitxa teknikoak informazio hori jasotzen badu, ezabatu egin beharko da aldez aurretik.

2. fitxategi elektronikoan (I. eranskinaren arabera)

2. fitxategi elektronikoan, FORMULEN APLIKAZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI dagokiena, honako hauek sartuko dira: eskaintza ekonomikoa eta ondorengo atalean zehazten diren hobekuntzei buruzko eskaintza; hori guztia plegu honi erantsitako ereduari jarraituz (I. eranskina).

Ereduan zehaztutako adierazpen guzti-guztiak ez dituzten proposamenak ez dira onartuko.

Ez da sartuko fitxategi honetan 1. fitxategian sartu beharreko dokumentazioa. Horietako dokumentuetakoren bat 1 fitxategian sartuz gero, ez da baloratuko.

Bergarako Udala

14.- LIZITAZIOAN BALORATUKO DIREN ALDERDIAK

Administrazioak, betiere lizitazioa hutsik gelditu izana aitortzen ez badu, kontratua adjudikatuko du honako adjudikazio-irizpide hauetan oinarrituta, kalitate-prezioaren erlazio onena duen eskaintza aukeratu ahal izateko.

Adjudikazioa egiteko kontuan hartu beharreko irizpide orokor moduan, hornidura ezarritako baldintzen eta epeen barruan eta egoki egingo dela ziurtatzeko ematen diren garantiak baloratuko dira orokorrean. Horrenbestez, automatikoki baloratuko dira honako gai hauek:

1. Prezioa .....0 puntutik 80 puntu arte
2. Berme-epean egindako hobekuntzak ...0 puntutik 14 puntu arte
3. Energia-kalifikazioa hobetzea .....0 puntutik 6 puntu arte

1.- Prezioa (80 puntu arte)

Eskaintza ekonomikoa prezio osorako eskaintza bat izango da. Gehieneko prezioa hau da: 125.084,27 euro (BEZ gabe).

80 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari, eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio txikiena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren zatiketa egin eta emaitza hori biderkatu irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoaz. Hau da:

LP = ET/LE x 80

LP: Lizitatzailearen puntuazioa

ET: Eskaintza onena

LE: Lizitatzailearen eskaintza

Eskaintza ekonomikoa baloratzerakoan, prezioa BEZ gabe hartuko da.

2.- Berme-epean egindako hobekuntzak (14 puntu arte)

Baloratu egingo da bermearen gutxieneko epea (3 urte) hobetzea. Hobekuntza planteatuko da I. eranskinean zerrendatutako elementu bakoitzeko. Bermearen urtebete gehiago bakoitzeko –gehienez bi urte arte– puntu bat (1) emango da. Argi eta garbi markatu beharko da produktu bakoitzeko eskaintzen den bermea (hobekuntza hau eskaini nahi izanez gero).

Honako elementu hauetan zabaldu ahal izango da bermea:

- Sukaldea
- Labe konbinatua
- Ke-kanpaia
- Iragazketa-modulua
- Dendako horma-bitrina
- Irla izoztailea
- Abatidorea

Adibide gisa, lizitatzaile batek sukalderako lau urteko bermea eta labe konbinaturako bost urteko bermea eskaintzen baditu, guztira hiru puntu lortuko ditu.

3.- Energia-eraginkortasunaren maila hobetzea (6 puntu arte)

Energia-etiketatzeari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, Baldintza Teknikoen Pleguaren I. eranskinean produktu hauentzat ezarritako energia-eraginkortasunaren maila hobetzea baloratuko da:

- Hozkailu-armairua
- Mahai hotza
- Erakusketa-bitrina, hoztua, 600 mm
- Erakusketa-bitrina, hoztua, 950 mm
- Dendako horma-bitrina
- Irla izoztailea

Eskainitako hobekuntza bakoitzeko, puntu bat emango da.

15.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak ireki aurretik, Mahaiak 1. fitxategi elektronikoan aurkeztatutako dokumentazioa sailkatuko du eta, horietan akats materialik antzemanez gero, Mahaiak hiru laneguneko epea eman ahal izango du lizitatzaileak akats horiek zuzendu ditzan.

Kontratazio Mahaiak proposamenak udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre plaza, 1), proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo ostegunean, 10:15ean, salbu eta aldez aurretik Kontratatzailearen Profilean beste datarik zehaztu bada.

Ekitaldi horretan, jendaurrean, soil-soilik onartutako proposamenei dagozkien 2. fitxategi elektronikoak irekiko dira. Egintza horretan, hasieran, berariazko adierazpena egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz, lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, bai eta baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzailearen profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

MAHAIBURUA:

· Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

· Kontuhartzailea, edo hark eskuordetuko duena.

. Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.

. Kontratazio teknikaria; honek Kontratazio Mahaiko idazkari-lanak egingo ditu.

Mahaiaren bileretan parte hartu ahal izango dute udalean erantzukizun teknikoa duten pertsonek, Mahaiak aholkularitza emateko hala eskatzen duenean. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

Bergarako Udala

16.- ADJUDIKAZIOA

Lehenagoko ekintzak egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala –originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz– hamar egun balioduneko epean –errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita–, kontratazio-mahaiak baloratu eta kalifikatu dezan:

a) Lizitatzailearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatzailearen erantzukizunpeko aitorpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrak ez direla aldatu.

Eskakizun hau egiaztatuko da aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bidez –bertan jaso beharko dira aseguratutako arriskuak eta zenbatekoak eta aseguruaren epemugaren data– eta, dagozkion kasuetan, asegurua izapidetzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez.

c) **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan**, kontratu-xedeari dagokion epigrafean, **alta emanda** egotearen egiaztagiria; alta uneko ekitaldian bertan hartua badu alta hori aurkeztuta, edo gainerako kasuetan EJZren azken ordainagiria aurkeztuta, baina kasu bietan ere zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.

d) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

- Irizpidea: Urteko negozio-bolumena; edo bestela, kontratuari dagokion alorrean dituen negozioen urteko bolumena, betiere azken hiru (3) ekitaldi eskuragarrietatik ekitaldi onena izan denari buruz, eta kontratuaren gehieneko kopurua kontuan hartuta –151.351,97, BEZ barne– kopuru horren bestekoa edo handiagoa izanik.
- Egiaztatzeko bidea: Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa nahikoa dela egiaztatzeko, kasu bakoitzerako erregelamendu bidez zehazten diren ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta tartean honako hauek: banku-ziurtagiria edo urteko kontuak eta enpresaburuaren adierazpena, non adieraziko den enpresaren negozio-bolumen osoa. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egoteak enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren baldintzak egiaztatuko ditu, erregistro horretan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.

e) **Gaitasun tekniko eta profesionala:**

- Irizpidea: Kontratuaren xedearen izaera bera edo antzekoa izanda egin dituzten hornidura nagusienen zerrenda, betiere gehienez azken hiru (3) urteetan, eta horren

urteko kopuru metatuta gehieneko urtean kontratuaren gehieneko kopuruaren bestekoa –**151.351,97** euro (BEZ barne)– edo handiagoa izan beharko da.

- Egiaztatzeko bidea: Adierazpen bat aurkeztu beharko du, egindako horniduren zerrendarekin, adierazita horien zenbatekoa, data eta hartzaile zehatza. Halaber, lizitatzaileak adierazpen hori egiaztatu beharko du, eta, horretarako, exekuzio onaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu baldin eta hartzailea administrazio publiko bat izan bada. Hartzailea subjektu pribatua izan bada, subjektu pribatu horrek emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren adierazpen baten bidez, prestazioa gauzatu dela egiaztatzen duten eta enpresaburuaren esku dauden agiriekin batera.

f) **Erantzukizun zibileko asegurua** badagoela egiaztatzea. Aseguruak gutxienez 150.000 euroko estaldura izango du. Egiaztagiri horrekin batera, kontratuaren iraupen osoan zehar asegurua mantentzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko du. Gutxienez 150.000 euroko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko du (II. eranskina eta III. eranskina).

g) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzeko dokumentazioa. Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta, horrenbestez, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

Halaber, jakinarazten da udalak, 39/2015 Legeko 53.1d) artikuluari jarraiki, kasuan kasuko Administrazioaren eskutik, honako datu hauek eskuratuko dituela ofizioz, eta hala, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak ez dituela honako datu hauek egiaztatu beharko:

- **Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.** SPKLko 771.1d), 140.1 a) eta 150.2 artikuluek ezarritakoari jarraiki, honako Administrazio hauengandik eskuratuko dira datuak:
    - Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Foru Ogasunak.
    - Gizarte Segurantza.

  **Hori horrela izanda, zergak aipatutako Lurralde Historikoetan ordaintzen ez dituzten lizitatzaileek ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dituzte.

17.- HORNIDURAREN KONTRATUA ETA EXEKUZIOA

Behin betiko adjudikazioa gehienez ere 5 egun balioduneko epean egingo da –dokumentazioa aurkezten duenetik kontatzen hasita–, betiere lizitatzaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta zehaztutako behin betiko bermea ezarri badu.

Adjudikazioa gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko da –behin betiko adjudikazioa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eskaintza anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen denean, eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio, eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kontratuaren formalizazioari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153.3 artikuluari jarraiki, kontratua ez da formalizatuko 15 egun baliodun igaro arte, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hornidura gauzatzeko epea plegu hauetako 2. artikuluan ezarritako epean amaituko da.

18.- KONTRATATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratistak zein azpikontratistek exekuzio-baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden eta aplikagarri diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, bai lan-arlokoak, bai gizarte-segurantzakoak, bai eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak.

Lizitatzaileek, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera gauzatuko duten langileei aplikatzeko hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko dute.

Era berean, kontratua esleitu eta gero, derrigortuta egongo dira langileei egiazki ezartzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatutako informazio guztia ematera.

Kontratua gauzatu bitartean, iraunaldi osoan zehar, adjudikazio-hartzaileak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

19.- AZPIKONTRATAZIOA

Horniketa azpikontratatuz gero, azpikontratazioa egokitu egin beharko zaio 9/2017 Legeak (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena) 215., 216. eta 217. artikuluetan ezarritakoari, eta baita indarrean egon daitekeen legediaren gainontzeko zehaztapenek ezarritakoari ere. Horren xehetasuna proposamenean sartu beharko da –1. fitxategi elektronikoan–.

20.- HORNIKETA ETA INSTALAZIOA GAUZATZEA

Horniketa eta instalazioa egiterakoan estu-estu jarraituko dira klausula administratibo partikularren plegu hau, baldintza teknikoen plegua eta, plegu hori interpretatuz, hornidura-zuzendaritzak kontratistari idatziz eman diezazkiokeen jarraibideak ere. Jarraibide horiek ere, kontratistarentzat, derrigor bete beharrekoak izango dira.

Horniketa eta instalazioa gauzatzerakoan inolako kalterik, okerrik edo istripurik izanez gero, hortik eratorri daitekeen erantzukizuna kontratistarena izango da. Erantzukizun hori garantia-epea betetakoan soilik amaituko da. Ondorio horretarako, Erantzukizun Zibileko poliza aurkeztu beharko dute, plegu honetako 17. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Bergarako Udalak bere teknikarien bitartez horniketa eta instalazioaren martxa ikuskatzeko eta zaintzeko ahalmena izango du.

21.- HORNIKETA ETA INSTALAZIOA ORDAINTZEA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEA

Adjudikazio-hartzaile den kontratistak benetan egin dituen horniketaren eta instalazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea du, aurrez adostutako prezioen arabera, hartarako onartu den dokumentu teknikoari jarraituz eta organo kontratatzaileak baimendutako aldaketekin.

Horrela, kontratistak horniketaren eta instalazioaren ziurtagiriak eman beharko ditu, eta horiek, aurrez Lurralde Batzorde Informatzaileak oniritzia emanda, organo eskudunaren onarpena beharko dute. Ordainketa ondorengo 30 egunetan egingo da.

Horniketa eta instalazio gauzatze hau kontratistaren gain eta kontura egingo da, eta kontratistak ez du eskubiderik izango lan horietan gertatutako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordainik jasotzeko, behintzat ezinbesteko kasuetan ez bada eta, betiere, bere partetik zuhurtziagabekeriazko egintzarik izan ez bada.

Ez da egongo prezio-eguneraketarik.

22.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri-onurako arrazoiak direla-eta, Bergarako Udalak kontratua aldatzea izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, eta betiere lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

23.- KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)

Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaileak baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan zehaztutako kasuak eta baldintzak.

24.- PENALIZAZIOAK

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 193. artikuluaren arabera, kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa igarotakoan burutu gabe baditu epe horretan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasua aztertu ondoren: kontratuari amaiera ematea; edo egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea, BEZik gabeko kontratu-prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratistak kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzeko.

25.- BERME-EPEA ETA FIDANTZA-ITZULERA

Horniketak bukatu ondoren, horien harrera egingo da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 111.5 artikuluaren arabera. Adjudikazio-hartzaileak eskainitako berme-epea amaitutakoan, behin betiko bermea itzuli egingo zaio, osorik edo zati batean, adjudikazio-hartzaileak kontratuko betebehar guztiak beteta ote dituen kontuan hartuta. Bermeari buruzko inolako eskaintzarik ez bada aurkezten, ondorio hauetarako Baldintzen Plegu Teknikoetan jasotako gutxieneko berme-epea hartuko da kontuan. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

26.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean jasotako mugen barruan eta betiere bertan ezartzen diren baldintzen eta ondorioen menpe, kontratazio-organoak eskumena du kontratu administratiboak interpretatzeko, kontratuok betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik horiek aldatzeko, kontratua gauzatzetik kontratistari

egotzi dakiokeen erantzukizuna aitortzeko, kontratua eteteko, kontratuari amaiera emateko, eta amaiera horren eraginak zehazteko.

Era berean, kontratazio-organoak ahalmena du kontratua gauzatzen den bitartean kontratisten jarduketak ikuskatzeko, lege honek kontratu-mota bakoitzarentzat ezarritako ondorio eta mugekin (azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 190. artikuluan).

Dagozkion erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

Kasu horietan entzun egingo zaio kontratistari.

27.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Hornidura-kontratua amaitzeko arrazoiak dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 245. artikuluetan jasotakoak.

III.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

28.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honek eta beroni erantsitako agiri guztiek kontratu-izaera izango dute. Plegu honen eta gainontzeko kontratu-dokumentu horietako edozeinen artean kontraesanik balego, plegu hau nagusituko da.

Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren klausuletako zehaztapen guztiak, edo gainontzeko kontratu-agiriak, edo hitzartutakoa betetzeko aplikagarri diren jarraibideak edo araudia, horrela izanda ere, horrek ez du adjudikazio-hartzailea salbuesten haiek bete behar izatetik.

Adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 156. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu honek administrazio-izaera du eta plegu honen arabera gertatu eta adjudikatuko da, eta horren araberako ondorioak eta amaiera izango ditu. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek izango dira aplikagarri: azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea –Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak (2014ko otsailaren 26koak) Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituena–; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua –Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua –Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena–, eta indarrean egon daitekeena 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren; eta, era osagarrian, administrazio-zuzenbidearen gainontzeko arauak aplikatuko dira eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratu honen ondorioz aldeen artean sor daitezkeen gai eztabaidagarriak erabakitzeko eskuduna Administrazioarekiko Auzietarako Ordena Jurisdikzionala izango da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 27-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

IV.- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

29.- UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEA

Enpresa adjudikazio-hartzaileak jarraitu egin beharko ditu Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei dagokienez (errotulu, argibide, herritarrentzako oharrak...).

Horrenbestez, elementu horiek euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Halaber, euskara hutsean jarriko dira mezuak ezagunak edo berez ulergarriak direnean: euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak direlako etab.

Aurreko bi kasu horiek gertatzen ez badira, ele bietan jarriko dira (euskaraz eta gaztelaniaz) euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik.

Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

Udaleko Bulego Teknikoa eta, behar izanez gero, Euskara Zerbitzua arduratuko dira hizkuntza-irizpideon gaineko zehaztasunak azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

30.- LAN-, GIZARTE- ETA GARDENTASUN-IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak –lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak–, eta, bereziki, Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboa –betiere uneoro Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako azken testuari dagokionean–.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak lanak hasi baino lehen aurkeztu egin beharko du bertan parte hartuko duten langileen zerrenda, eta baita enpresa azpikontratatuei dagozkien kideen zerrenda ere; eta egiaztatu egin beharko dute Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren menpe daudela.

Era berean, 19/2013 Legeak (abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 4. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratuaren adjudikazio-hartzailea behartuta dago administrazioari behar den informazio guztia ematera –hark errekeritu ondoren–, arau horretan bertan edo udal eremuan onartu daitezkeen arauetan ezarritako betebeharrak bete ahal izateko.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila baldintza administratibo partikularren plegu hau (Oxirondo Azokako udal eraikinean, beheko solairuko eskuinaldean, sukaldearen eta gune bateratu-dendaren oinarrizko ekipamenduaren hornikuntza egiteko eta instalatzeko) 2024ko urtarrilaren 11n emandako dekretu baten bidez onartu dela; izan ere, horren bidez zuzendu egin da 2023ko abenduaren 15ean dekretuz onartutako plegu administratiboan jaso zen lizitazio-aurrekontua.

Bergara, 2024ko urtarrilaren 11.

IDAZKARIA

BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
SECRETARIA
IDAZKARITZA

Bergarako Udala

I. ERANSKINA

FORMULEN APLIKAZIOAREN BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO ESKAINTZA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izena eta abizenak	**NAN**
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa	
Harremanetarako telefonoa	

HAU AITORTZEN DU:

1.- Ezagutzen dituela Klausula Administratibo Partikularren plegua, Baldintza Teknikoen Plegua eta espedientean jasotako gainontzeko agiriak, eta horiek guztiak berariaz onartzen dituela, inolako salbuespenik gabe.

2.- Bere burua behartzen duela lanaren, zergen eta gizarte-segurantzaren arloan onartutako legeak eta arauak betetzera. Era berean, kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatutako informazio guztia kontratazio-organoari emateko konpromisoa hartzen duela.

3.- Eskaintza egiterakoan kontuan hartu dituela indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak arlo hauetan: enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, bereziki Gipuzkoan aplikagarri diren jarduera-sektoreen lan-hitzarmenak, eta ingurumenaren babesa

4.- Ordezkatzen duen enpresak ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.

5.- Adjudikazio-hartzaile izanez gero, kontratuaren xede den jardueran jardungo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa hau izango dela: .....

6.- Honako jaun/andre hau **teknikari arduradun** izendatzen dudala, horniduran, instalazioan eta martxan jartzean **sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko:** .....

7.- Konpromisoa hartzen dudala, beharrezkoa izanez gero, instalatutako ekipoen ordezko piezak hornituko direla bermatzeko, gutxienez bost (5) urtean zehar –harrera-akta sinatzen denetik kontatzen hasita–.

8.- Kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut honako **prezioan**:

	Gehieneko prezioa, BEZ gabe	Prezioa, BEZ gabe	BEZ (% 21)	BEZaren diru-kopurua
Ekipamendua, plegu teknikoa (1. eranskina)	**125.084,27 €**			

9.- Honako horniketa hauen **berme-epea hobetzeko** konpromisoa hartzen dut (markatu "x" batez baiezkoa bada, eta zehaztu 1 edo 2 –ezabatu ez dagokiona– legezko hiru berme-urteak gainditzen diren urteen arabera):

- SUKALDEA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- LABE KONBINATUA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- KE-KANPAIA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- IRAGAZKETA-MODULUA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- DENDARAKO HORMA-BITRINA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- IRLA IZOZTAILEA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte
- ABATIDOREA
  - ☐ 1 urte
  - ☐ 2 urte

10.- Honako horniketa hauen **energia-eraginkortasunaren maila** hobetzeko konpromisoa hartzen dut (markatu "x" batez baiezkoa bada):

- ☐ ARMAIRU IZOZTAILEA

Bergarako Udala

- □ MAHAI HOTZA
- □ ERAKUSKETA-BITRINA, HOZTUA, 600 MM
- □ ERAKUSKETA-BITRINA, HOZTUA, 950 MM
- □ DENDARAKO HORMA-BITRINA
- □ IRLA IZOZTAILEA

Bergaran, 202...ko .....aren .....(e)an

Sinadura

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN-EREDUA

ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ESTALDURAREN ZIURTAGIRIA, HORNIDURA ETA INSTALAZIO HAUETARAKO: OXIRONDO AZOKAKO UDAL ERAIKINEAN, BEHEKO SOLAIRUKO ESKUINALDEAN, SUKALDEAREN ETA GUNE BATERATU-DENDAREN OINARRIZKO EKIPAMENDUA HORNITZEA ETA INSTALATZEA.

Jaun/Andre honek: .....

Aseguru-etxe honen ahalduna edo horren ordezkaritzan: .....

Edo bestela, Aseguru Artekaritza honen ahalduna edo horren ordezkaritzan:.....

ZIURTATZEN DU:

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxearen eta aseguru-hartzailearen artean sinatu denak– hornidura eta instalazio hauetatik erator daitekeen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua) estaltzen duela.

Poliza-zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Aseguru-hartzailea:.....

Estalitako hornidura eta instalazioa: Oxirondo azokako udal eraikinean, beheko solairuko eskuinaldean, sukaldearen eta gune bateratu-dendaren oinarrizko ekipamendua hornitzea eta instalatzea.

Eta horrela jasota gera dadin, eta hornidura horren estaldura ziurtatzearen ondorioetarako, ziurtagiri hau ematen dut 202...ko .....aren .....(e)an.

Bergarako Udala

III. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA, HONAKO HORNIDURA ETA INSTALAZIO HAUETAKO ERANTZUKIZUN ZIBILAREN POLIZAREN INDARRALDIARI BURUZKOA:

OXIRONDO AZOKAKO UDAL ERAIKINEAN, BEHEKO SOLAIRUKO ESKUINALDEAN, SUKALDEAREN ETA GUNE BATERATU-DENDAREN OINARRIZKO EKIPAMENDUA HORNITZEA ETA INSTALATZEA.

Izen-abizenak: _____

Enpresa honen izenean eta ordezkaritzan: _____

KONTRATAZIO-MAHAIBURUAREN AURREAN, BERE ERANTZUKIZUNPEAN HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxeak eta aseguru-hartzaileak sinatutakoak eta jarraian jasotzen diren hornidura eta instalazioaren erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua) estaltzen duenak– indarrean iraungo duela aipatutako horniketak bukatu eta haien harrera egin arte.

Poliza-zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Aseguru-hartzailea:.....

Estalitako hornidura eta instalazioa: Oxirondo azokako udal eraikinean, beheko solairuko eskuinaldean, sukaldearen eta gune bateratu-dendaren oinarrizko ekipamendua hornitzea eta instalatzea.

DATA ETA SINADURA

IV. ERANSKINA

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

ORDEZKARIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izena eta abizenak	**NAN**
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa	
Harremanetarako telefonoa	

*Jakinarazpenak ordezkariari egingo zaizkio. Jakinarazpen elektronikoa ikusteko identifikazio sistema elektronikoa beharko du (B@kQ, NAN elektronikoa...)

ORDEZKATUAREN DATUAK

Helbide soziala
IFZ

*Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko

DATA ETA SINADURA

Bergarako Udala

V. ERANSKINA

KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTAZIOA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izena eta abizenak	**NAN**
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa	
Harremanetarako telefonoa	

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**:

-
-
-

.....

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

-
-
-

.....

SINADURA

Bergarako
Udala

PLIEGO DE CONDICIONES ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE RIGE EL SUMINISTRO E INSTALACIÓN DEL EQUIPAMIENTO BÁSICO DE LA COCINA Y DEL ESPACIO ÚNICO-TIENDA SITA EN LA PARTE DERECHA DE LA PLANTA BAJA DEL EDIFICIO MUNICIPAL DE OXIRONDO AZOKA

I- CONTENIDO DEL CONTRATO

1.- OBJETO

Constituye objeto del contrato el suministro e instalación del equipamiento básico de la cocina y del espacio único-tienda sita en la parte derecha de la planta baja del edificio municipal Oxirondo Azoka. El mencionado suministro se realizará y prestará de acuerdo con lo establecido en el presente pliego y en el pliego de prescripciones técnicas, los cuales pasarán a formar parte del contrato a suscribir con la empresa adjudicataria.

CPV	DENOMINACIÓN
39141000-2	Muebles y equipos de cocina

A efectos de lo previsto en el artículo 62 de la LCSP, el **Responsable del Contrato** es el aparejador municipal.

2.- PLAZO DE ENTREGA

La empresa adjudicataria deberá suministrar e instalar el equipamiento básico de la cocina y del espacio único-tienda sita en la parte derecha de la planta baja del edificio municipal Oxirondo Azoka, en los términos acordados con los servicios técnicos municipales y dentro del plazo establecido en el pliego de condiciones técnicas.

3.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA ADMINISTRACIÓN (AYUNTAMIENTO DE BERGARA)

Teniendo en cuenta que, cuando en estos pliegos de condiciones reguladoras de la contratación se cita a la Administración y/o al Ayuntamiento de Bergara, siempre y en todos los casos se hace referencia al Ayuntamiento de Bergara, sus derechos y obligaciones son los siguientes:

- Corresponde al ayuntamiento inspeccionar el contrato a través de su personal técnico, el cual podrá dar instrucciones a la empresa contratista para un correcto cumplimiento del contrato, basándose en las cláusulas contractuales y teniendo en cuenta que la potestad directiva e inspectora la ostentará la Alcaldía.
- Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que suscite su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector

Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

- Abonar el precio de adjudicación, es decir, el Ayuntamiento de Bergara estará obligado a abonar los importes establecidos en este Pliego de Condiciones Administrativas Particulares.
- Otorgar a la empresa adjudicataria la protección adecuada para que pueda prestar el suministro debidamente y prestar ayuda a la adjudicataria en todo lo posible.

4.- PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato, IVA excluido, será de 125.084,27 euros (151.351,97 euros, IVA incluido).

La citada cuantía podrá ser objeto de mejora por parte de las ofertantes. Las licitadoras deberán incluir en su oferta el IVA (Impuesto sobre el Valor Añadido), desglosando dicho concepto. En ningún caso podrán ofertarse precios superiores.

El precio comprende todos los gastos necesarios para el suministro y, en su caso, para la instalación. Únicamente a título de ejemplo: transporte, embalaje, gastos de montaje... Es decir, están incluidos todos aquellos gastos no asumidos expresamente por el ayuntamiento en este pliego.

Las licitadoras podrán mejorar el precio. En ningún caso se podrá ofrecer un precio más alto. Si la adjudicataria estuviese exenta del pago del IVA, deberá justificarlo debidamente y esta cantidad no se incluirá en la oferta. Se abonará el precio ofertado por la adjudicataria.

5.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO y PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

Valor estimado: **125.084,27 euros** (IVA excluido).

Presupuesto base de licitación:

- Tipo o precio de licitación (sin IVA): 125.084,27 €

- IVA (21 %): 26.267,70 €

- Total: **151.351,97 €**

El suministro objeto de esta licitación está compuesto en su totalidad por costes directos, por lo que no procede su desglose individual.

6.- FINANCIACIÓN

El órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar el crédito necesario para la financiación de este contrato en los presupuestos de los futuros ejercicios económicos que resulten afectados.

La partida presupuestaria es la siguiente: 1 3900.643.431.20.01 2023 (BK 1050)

7.- FORMA DE PAGO

Bergarako Udala

Una vez terminados el suministro y los trabajos de instalación, la empresa adjudicataria deberá presentar la factura correspondiente.

Una vez aprobadas las facturas, éstas serán abonadas dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La empresa contratista presentará la(s) factura(s) en formato electrónico, a través del Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa (PGEFe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), según lo dispuesto en la Norma de Ejecución Presupuestaria municipal, en cumplimiento de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público.

Códigos DIR3 de las unidades orgánicas:

Ayuntamiento de Bergara:

- Órgano gestor: EL01200744
- Unidad tramitadora: EL01200744
- Oficina contable: EL01200744

8.- REVISIÓN DE PRECIOS

No cabe revisión de precios.

9.- GARANTÍAS

No procede la constitución de garantía provisional.

